



Posible duzu komiki hau irakurtzea?

Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 komikiz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (posterrak, mandalak, sakontzeko koadernoak...) eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

6. HIESa justiziaren ikuspegitik.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)
7. Ura: ondasun publikoa.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)
8. Garapenerako munduko elkarte bat sustatzea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)
9. Milurtekoko garapen helburuak,
aldaketarako tresna edo garapen gaingabetua? (2008)
10. Lurra zoratuta dago! Soberan daukate
eta badago iristen ez zaion pertsonarik. (2008)
11. Posible duzu komiki hau irakurtzea? (2008)

Egilea: Eider Eibar Zugazabeitia

Argitaratzaileak: ALBOAN

Itzulpena: Elhuyar

Lege-Zenbakia: BI-1243-08

ISBN: 978-84-612-2595-8

Azalako diseinu: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

www.alboan.org

Iruñea


Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Bilbo

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Donostia

Erronda kalea, 7, 4. I • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267
alboangi@alboan.org



OINARRIZKO HEZKUNTZA



MILIOIKA NESKA-MUTIKOK EZ DUTE HEZKUNTZA JASOTZEKO AUKERARIK; BAINA HEZKUNTZA FUNTSEZKO DA "BIZI" AHAL IZATEKO, EDO EROSTEKO, BERRIAK IRAKURRI EDO ULERTZEKO, DENDETAN JARTZEN DUENA ULERTZEKO, EROSKETAK EGITEKO (BATUKETAK EGITEKO...), SINATZEN DITUZTEN AGIRIAK IRAKURTZEKO EDO BEREN ESPLLOTATZAILEEI IRUZUR EGITEN EZ UZTEKO.



AFAR ETIOPIAKO ALDERIK TXIROENETAKO BAT DA, ETA HANGO ESKUALDE BATEKO DATUAK IKUSIKO DITUGU: AZPIEGITURAK OSO URRIAK DIRA, ETA KALKULATZEN DUTE ESKOLARA JOATEKO ADINEAN DAUDEN HAURREN %90EK EZ DUTELA OINARRIZKO HEZKUNTZARIK JASOTZEN.

AFARREKO BIZTANLERIAREN JARDUERA NAGUSIA BEHIAK, ARDIAK, AHUNTZAK ETA GAMELUAK HAZTEA DA; HOTS, ABELTZAINAK DIRA BIZTANLE GEHIENAK. BIZIMODU NOMADAK AGINTZEN DU HAURREN BIZITZAN.

TXIKITATIK, ARTALDEAK ETA AHUNTZ-TALDEAK ZAINTZEN HASTEN DIRA MUTIKOAK, ETA NESKATILEK, ALDIZ, ETXeko LANETAN LAGUNTZEN DUTE.



MEDINA HUMED AHMED ARTZAIN-HERRI BATEKO NESKATILA BAT DA. TXIKI-TXIKITATIK KENDU ZIOTEN HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA, AMARI ETXEKO LANETAN LAGUNTZEN EMAN BAITZUEN DENBORA GEHIENA. KANPOKO MUNDUAREKIN ZUEN HARREMAN GUZTIA UR ETA EGUR BILA JOATEA EDO FAMILIAKO ARDI ETA AHUNTZAK LARREETARA ERAMATEA ZEN.



ORAIN, ARTZAIN-KOMUNITATEKO BESTE NESKA-MUTIKO BATZUEKIN BATERA, MEDINA ESKOLARA JOAN DAITEKE, OINARRIZKO ORDEZKO HEZKUNTZA ESTRATEGIARI ESKER. ARTZAINEN BEHAR BEREZKETARA ETA HAIEN BIZIMODU MUGATUETARA EGOKITUTAKO HEZKUNTZA-METODOEN PREMIA LARRIA DAGO, ETA HORIXE ESKAINTZEN DU PROGRAMA HORREK. HALA, MEDINA GOIZ JAIKITZEN DA FAMILIAKO ARDIAK ETA AHUNTZAK LARREETARA ERAMATEKO. GERO, ETXERA ITZULTZEN DA ESKOLARAKO BEHAR DUENA HARTZERA, ETA ESKOLARA JOATEN DA IKASTERA, BESTE 40 IKASLEREKIN BATERA.



LUR OROTAKO
IBILGAILU BAT GIDATU
NAHI DUT, ETA
HEGAZKINAK ERE
PILOTATU NAHI DITUT.



ALAK BAINO EZ
DAKI ZEIN DEN MEDINAREN
PATUA, BAINA NIK USTE DUT
BIZITZARAKO BEHAR DEN
PRESTAKUNTZARIK ONENA
EMANGO DIOLA
HEZKUNTZAK.


DOHAKO HEZKUNTZA

HEZKUNTZA DOHAKOA ETA NAHITAEZKOA DA. LIBURUAK ETA BESTELAKO BALIABIDEAK ORDAINDU BEHARRA ARAZOA IZAN DAITEKE FAMILIA POBREEN EKONOMIA MUGATURAKO. HIRI-INGURUNEETAN ERE GERTATZEN DIRA HALAKOAK; ESKOLARA IRISTEA ERRAZAGOA IZAN ARREN, FAMILIARAKO DIRUA LORTZEKO BEHARRAREN ONDORIOZ ESKOLA UTZI BEHAR IZATEN DU NESKA-MUTIKO ASKOK.



ESKOLA 3 KM.





KOLONBIAN 3 MILIOI PERTSONA INGURUK (HORIETAKO %75 EMAKUMEAK ETA HAURRAK) BIZITOKIA UTZI ETA KOLONBIAKO BESTE TOKIREN BATERA JOAN BEHAR IZAN DUTE AZKEN 15 URTEOTAN, INDARKERIAREN ERRUZ.

2004. URTEAN BAKARRIK, MILIOI-LAURDEN PERTSONAK BAINO GEHIAGOK ETXEA UTZI BEHAR IZAN ZUTEN. DESPLAZATUEK ZAILTASUNAK DITUZTE UR EDANGARRIA ETA OINARRIZKO HEZKUNTZA- ETA OSASUN-ZERBITZUAK JASOTZEKO.



JOANA 11 URTEKO NESKATILA KOLONBIARRAK ETXETIK IHES EGIN BEHAR IZAN ZUEN FAMILIAREKIN, KOLONBIAKO GERRA ZIBILAREN ONDORIOZ.

2004. URTETIK MIRLAS-EN BIZI DA; AMA NESKAMEA DA, ETA OZTA-OZTA IRABAZTEN DU ALOKAIRUA ORDAINTEKO ADINA. HILABETE ASKOAN JOANAK ETA BERE AHIZPEK EZIN IZAN ZUTEN ESKOLARA JOAN, EZ BAITZUTEN DIRURIK AZTERKETAK, UNIFORMEAK ETA LIBURUAK ORDAINTEKO.



HAIEN EGOERA ALDATU EGIN ZEN, ORDEA, GUZTIONTZAKO ESKOLA PROIEKTUKO PARTAIDEAK BEREN FAMILIAKO ETXEA IKUSTERA JOAN ZIRENEAN IAZ. HAURREN ESKOLA-GASTU GUZTIAK ORDAINTZEN DITU PROIEKTUAK.



JOANA TRAUMATIZATUTA ZEGOEN MENDIALDEAN BIZI ZENEAN NOZITU ZUEN INDARKERIAGATIK, ETA ESKOLARA ITZULTZEA AURRERAPAUZO GARRANTZITSUA IZAN ZEN HARENTZAT.

LEHEN GUTXI
HITZ EGITEN NUEN, BAINA
ORAIN, ESKOLAN, ISILDU
GABE ARITZEN NAIZ!



KALITATEKO HEZKUNTZA

PARÁ ESKUALDEKO ESKOLAK (BRASIL) AMAZONAS IBAIAREN IBAIADARRETAN DAUDE, ETA, HORRENBESTEZ, INSTALAZIOAK EZ DIRA ESKOLA EMATEKO EGOKIENAK.

BESTALDE, INGURU HORRETAKEO NESKA-MUTIL ASKOK IKASTEARI UZTEKO JOERA DUTE, EDOTA EZ DITUZTE OINARRIZKO EZAGUTZAK ERE HARTZEN.

PARÁ ESTATUKO JUABA HERRIXKAN DAGOEN LEHEN HEZKUNTZAKO ESKOLARA JOATEN DA NAYANE IZENENKO NESKATILA. 33 NESKA-MUTIKO DIRA GELAN.



MATEMATIKAK, GEOGRAFIA, HISTORIA,
ZIENTZIAK, PORTUGESA ETA GORPUTZ-
HEZKUNTZA IRAKASTEN DIZKIGU MAISUAK.



BAINA AURTEN EZ DUGU
HISTORIAKO LIBURURIK ETA EZ DAGO
MUSIKA IRAKATSIKO DIGUN INOR. PENA
EMATEN DIT. NIRE HERRIARI BURUZ
GEHIAGO IKASI NAHI NUKE, ETA MUSIKA IKASI
BEHARRA DUT!



HANDIA NAIZENEAN ABESLARI
IZAN NAHI DUT ETA!

EDDIR, NAYANEREN MAISUA, BAT DATOR NESKATILAREKIN,
ESKOLAK EMATEN DUEN HEZKUNTZAREN KALITATEAK HOBEA IZAN
BEHAR LUKEELA USTE BAITU.

IRAKASKUNTZARAKO OINARRIZKO
IKASTARO BAT BAINO EZ DUT EGIN, BAINA LEHEN
MAILATIK LAUGARRENERAKO GAI GUZTIAK EMAN BEHAR DITUT
HEMEN, ETA BI GELAZ ARDURATU BEHAR DUT EGUNERO. EZ DA
ERRAZA; MENDERATZEN EZ DITUDAN GAIK IRAKATSI BEHAR
IZATEN DITUT BATZUETAN. BATZUETAN NAHASI EGITEN
NAIZ, ETA HORREK IKASLEAK NAHASTEN DITU.




EDDIRREK GEHIAGO IKASI NAHI DU BAINA DENBORA GUTXI DAUKALA
DIO. HALA ERE, BERE SOLDATAREKIN EZIN DU UNIBERTSITATE
PRIBATUKO MATRIKULA ORDAINDU.



DAKIDANA, NI BEZALAKO IRAKASLEEI
FORMAZIO GEHIAGO EMANGO BALIGUTE
GAUZAK OSO BESTELAKOAK
IZANGO LIRATEKEELA DA.

NIKARAGUAN IRAKASLEEK 36 IKASLE DITUZTE BATEZ BESTE GELA BAKOITZEKO, ETA BEREN SOLDATAK OSO BAXUAK DIRA. LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN SOLDATA 55 EUROKOA DA, ETA EZ DA IRISTEN OINARRIZKO BEHARRAK ASETZEKO. GEHIENAK EZ DIRA ETXEBIZITZA BATEN JABE, EZ DUTE BIZI-ASEGURURIK ETA ZAILTASUNAK DITUZTE BOTIKAK ETA MATERIALAK LORTZEKO.



IRAKASLE ASKOK, BEREN BEHAR GUZTIEI ERANTZUTEKO, LANALDI BIKOITZA EGITEN DUTE. YHERLIN-EK LAN EGITEN DUEN IKASTETXEAN 31 IRAKASLE DAUDE, ETA HORIETATIK %33K LANALDI BIKOITZA DUTE. YHERLIN BERA ERE EZ DA SALBUESPENA, EGUNEAN BI LANALDI BETETZEN BAITITU.

GAINERA, HIZKUNTZA ETA LITERATURA HISPANIKOAK ESPEZIALITATEKO IKASKETAK EGITEN JARRAITZEN DU UNIBERTSITATEAN.



FELISTUS EGUNERO ESKOLARA JOATEN DA ETXEAN LANAK AMAITU ONDOREN.

HAREN AMA PATRIZIA EGUR BILA JOATEN DA, ETA FELISTUSEK ETA BERE ANAIK OILOEI JATEN EMATEN DIETE ETA UR BILA JOATEN DIRA. HORRETARAKO, GOIZ JAIKI BEHAR DUTE, ESKOLARA BERANDU IRISTEN BAITIRA BESTELA.



ESKOLAN LURREAN ESERTZEN DIRA, EZ BAITAGO AULKIRIK. BAKOITZAK KOADERNO BAT DU ETA OSO ONGI ZAINTZEN DUTE. ARRETA HANDIZ ENTZUTEN DUTE IRAKASLEAK ESATEN DUENA. IRAKASLEAK BATZUETAN EZIN IZATEN DU ETORRI, BOLUNTARIOA BAITA. GOBERNUAK EZIN DIE HERRIALDEKO IRAKASLE GUZTIEI ORDAINDU.



FELISTUS IBAIRA SO GELDITZEN DENEAN, GAUZAK ALDATU EGITEN DIRELA AMETS EGITEN DU. ZAMBEZI IBAIAREN ERTZEAN ESERITA EGUZKIA EZKUTATZEN IKUSTEA MAITE DU FELISTUSEK.

FELISTUSEK BADA
IRAKURTZEN ETA
IDAZTEN JAKITEAK
ETA MATEMATIKAK
ERABILTZEKO
ERRAZTASUNA
HARTZEAK BERE
BIZITZA ALDATZEKO
AUKERA EMANGO
DIOLA, HARTARA,
BERAK ETA BERE
HERRIAK BIZIMODU
HOBEA IZAN
DEZATEN
AHALEGINTZEKO.

NIRE AMETSA
BIDAIATZEA
ETA BESTE
HERRIALDE BATZUK
EZAGUTZEA DA.




HELDUENTZAKO HEZKUNTZA

AZKEN HOGEI URTEOTAN MUNDUKO ALFABETATZE-TASA %10 IGO DA, ETA HORREK ESAN NAHI DU EHUNKA MILIOI PERTSONARI IDATZITA DAGOENA ULERTZEKO ATEA ZABALDU ZAIELA.



BAINA ORAINDIK 785 MILIOI PERTSONA HELDU DAUDE ALFABETATU GABE (HORIETATIK BI HEREN EMAKUMEAK DIRA).



POPULAZIO
HELDUAREN 1/5AK
ORAINDIK EZ DAKI
IRAKURTZEN ETA
IDAZTEN.

100 MILIOI HAUR EZ DIRA ESKOLARA JOATEN.



ZENBAIT KASUTAN LEHEN HEZKUNTZAKO ESKOLETAN IKASTEN DUTE, BAINA GAUEZ; BESTE BATZUETAN, HAURREKIN JOAN BEHAR DUTE ESKOLARA.



ANDRÉS GAZTEAK ALDERDI PERTSONALEAN ZEIN LAN-ARLOAN AURRERA EGITEA LORTU DU HELDUENTZAKO HEZKUNTZARAKO NAZIO INSTITUTUAREN (INEA) LAGUNTZARI ESKER.

HAURRA NINTZENETIK LAN EGIN BEHAR IZAN NUEN, ETA IKASTEN JARRAITU AHAL IZATEKO ITXAROPEN GUZTIA KENDU ZIDAN HORREK.



HALA ERE, EMAZTEAREN ETA SEME-ALABEN LAGUNTZAREKIN, BERRIZ ERE IKASTEARI EGIN ZION HELDUEN HEZKUNTZARAKO NAZIO INSTITUTUKO XOCHIMILCO ZONAKO KOORDINAZIOAN, MEXIKO HIRIAN.



EMAN ZIDATEN MATERIALAREKIN, NIRE ALDETIK IKASTEN NUEN, GARRAIOBIDE PUBLIKOETAN, ETXEAN... AHAL NUEN LEKU GUZTIAN.



ONGI PRESTATUTA NENGOELA NEKIENEAN BAINO EZ NITUEN AZTERKETAK EGITEN.



GENERO-BERDINTASUNA

FAMILIEK ERABAKI OHI DUTE LEHENIK NESKATILEK UTZI BEHAR DUTELA ESKOLA,
ETXEKO LANETAN LAGUN DEZATEN, EDO BARATZEAN...
GENERO-BERDINTASUNIK EZAK MUGATU EGIN DITU NESKATILEN
IKASKETAK. ONDORIOZ, BERDINTASUN-ESKUBIDEAREN
URRAKETAN EMAKUMEA IZAN OHI DA PROTAGONISTA.



BERDINTASUNIK EZA NOLA GAINDITU ERAKUSTEN DUEN ADIBIDE GARBIA DA
LALITA-REN TESTIGANTZA. ANAIK ESKOLARA ZIHOAZELA IKUSITA, ESKOLARA
EZKUTUAN JOATEA ERABAKI ZUEN LALITAK; HAIN ZUZEN ERE, EGOERA ZAILEAN
DAUDEN KOMUNITATEETAKO NESKATILENTZAKO “JAGJAGI” ESKOLARA.



ORAINDIK ERE GOGOAN DUT ANAIK ESKOLARA BIDEAN HARRAPATU NINDUEN EGUNA. JIPOIA EMAN ZIDAN; FAMILIAKO GIZON BAKAR BAT ERE EZ ZEN ESKOLARA JOAN, ETA NIK IKASTEAK LOTSARAZI EGITEN ZUEN. AMAK ANAIAREN INDARKERIA JUSTIFIKATU ZUEN... EZIN DUT ULERTU AMEK ZERGATIK EZ DUTEN EGITEN ALABEN ALDE.



FAMILIAREN ONIRITZIRIK IZAN EZ ARREN, LALITAK MAHILA SAMAKHYA PROGRAMAN (EMAKUMEEN BERDINTASUNAREN ALDEKO HEZKUNTZA-PROGRAMA) IZENA EMAN ZUEN BESTE NESKATILA BATZUEKIN BATERA.



IKASTEN JARRAITU NAHI DUT ANDEREÑO TREBATUA IZAN ARTE. EZAGUTZEN EZ DUTEN MUNDUA ERAKUTSI NAHI DIET NESKATILEI. ETA HERRIXKA BAKOITZAK BERE ESKOLA IZATEA DA NIRE AMETSA!

HONDURASEN IA 90.000 PERTSONAK EGITEN DUGU LAN MAQUILETAN, ETA GEHIENAK EMAKUME GAZTEAK GARA (16 ETA 18 URTE ARTEKOAK). HORREGATIK EMAN ZIGUTEN LANA; ORAINDIK GAZTEAK GARELAKO, ETA UGAZABEK ESATEN DUTELAKO EMAKUMEOK ARAZO GUTXIAGO SORTZEN DUGULA, EZ GAUDELAKO OHITUTA GURE ESKUBIDEAK ALDARRIKATZERA ETA TALDEAN ANTOLATZERA. GURE LANTEGIAN BEROA JASANEZINA DA, IA EZ DAGO LEIHORIK, EGUNEAN 12 ORDUTIK GORA EGITEN DUGU LAN, ETA EDATEKO URIK ERE EZ DAGO, EZ ETA AULKIRIK ERE ATSEDEN HARTZEKO.



LANTEGITIK ITZULTZEN
NAIZENEAN, TXIKITAN ESKOLARA
JOAN IZAN BANINTZ NIRE
BIZITZA NOLAKOA IZANGO
LITZATEKEEN PENTSATZEN
DUT.

ESKOLAK LAN DUINA LORTZEKO
BIDEA IREKI IZANGO LIDAKE.
JOAN IZAN BANINTZ,
MAQUILETAKO LANGILE GISA
DITUDAN ESKUBIDEAK HOBETO
EZAGUTUKO NITUZKE.

LANTEGIKO EMAKUME LANGILE
GUZTIEN LAN-BALDINTZAK
HOBETZEA ESKATZEKO
MOBILIZAZIO-GAITASUN
HANDIAGOA
ERE IZANGO NUKE.



ORAINDIK ERE AMETS
EGITEN DUT
HELDUEN
HEZKUNTZA HARTU
AHAL IZANGO DUDALA
NOIZBAIT, NIRE
ESKUBIDEAK HOBETO
EZAGUTUKO
DITUDALA, ETA
PERTSONA GISA
GEHIAGO GARATU AHAL
IZANGO NAIZELA.



BUENO, BESTE
HISTORIA BATZUK
EZAGUTZEN
DITUZU ORAIN...

...ETA ZEREGIN
HANDIA DAGOELA
OHARTUKO ZINEN.



BAINA NAHI BADUGU,
AINTZAT HAR DEZAGUN
GUZTI-GUZTIOK DUGULA
OINARRIZKO HEZKUNTZA
IZATEKO ESKUBIDEA.



AHAZTU EGIN ZAIT,
NIRE BIDEAN JARRAITU
BEHAR DUT!



NI EGON EZ
ARREN,
GOGOAN IZAN
IKASITAKOA...

... EZ DELA INOIZ
AHAZTEN, ETA
IRAKURRI DUZUENA
BURUAN DUZUELA!



BATEK DAKI,
HEGAZKINLARIA
IZANGO NAIZ BIHAR
BEHARBADA, EDO
ANDEREÑO...